


BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresan, garrantzi handia ematen diogu bezeroekiko harremani. Horregatik, pentsatu dugu haientzat egokiena harreman pertsonala dela, beraz langileen eta bezeroen artean hurbiltasuna bilatu nahi dugu.

Museoan eta erromesen aterpetxean bezeroentzako **laguntza pertsonalak** edukiko ditugu. Alde batetik, museoan gidak edukiko ditugu eta hauek bezeroei azalpenak emateaz aparte bezeroen edozein zalantza argitzeko prest egongo dira. Gainera, museoren eta aterpetxearen sarreran, harrera-leku bat egongo da, bezeroak laguntzeko eta telefono deiak jasotzeko.

Horretaz gain, bezeroak museora sartzeko sarrerak eta aterpetxean lo egiteko lekua erreserbatzekotan bi modu dauzkagu, batetik, harreman pertsonalaren bidez, hau da museora edo aterpetxera deituz edo hauen harrera-lekura joanda. Bestetik, gurekin kontaktatu dezakete korreo elektronikoaren bidez, web gunearen bidez edo sare sozialen bidez, hau da **harreman automatizatuaren** bidez.



The screenshot shows a website navigation menu with options: HASIERA, INFORMAZIOA, BIDEOA, EKINTZAK, and KONTAKTUA. Below the menu, there are two tabs: 'Servicios privados' (selected) and 'Servicios grupales'. The main content area is titled 'Nuestras sesiones privadas' and displays three activity cards:

Activity	Duration	Price	Reserve Button
Visitas Turísticas Museo	1 hr. 30 min.	10,00 €	Reservar
Tirolina	5 min.	3,00 €	Reservar
Paddle	1 hr.	20,00 €	Reservar

Tirolinan eta uretako kiroletan, harreman pertsonala ere edukiko dugu, irakasle profesionalak egongo dira bezeroei azalpenak eta laguntza eskaintzeko. Honen sarrerak, museoaren sarrerak lortzeko modu berdinean eskuratu daitezke.

